



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2007KO ABENDUAREN 27AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

Jabier Berrojalbiz Bidaguren

Angel Luis Uribarri Gondra jauna

Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea

Beñat Erezuma Arisketa jauna

Jasone Bernaola Aurrekoetxea

Roman Etxeandia Zabala

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2007ko abenduaren 27an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2007ko azaroaren 29an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

2007/48 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Gernika – Lumoko Allende Salazar ikastetxeko guraso elkartearen ordezkartizan, Ander Gorriño jaunak, abenduaren 16an Kanpantxuko txokoan antolatutako umeein ospatu beharreko hamaiketarako frontoiaren erabilera eta Udaletxeko mahaiak eskatzen ditu.



Ajangizko Udala

Indarreango legediak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

1.- Gernika Lumoko Allende Salazar Ikastetxeko guraso elkarteak abenduaren 16rako antolatu duen hamaiketarako Kanpantxuko frontoia eta Udaletxeko mahaiak erabiltzeko baimena ematea.

2.- Eskatzailea sortu daitezkeen kalteen erantzule izango da. Egun horretarako arduradun bat izendatuko da Udalarekin harremanetarako.

3.- Erabiltzaileei ingurua errespetatzea eskatuko zaie, paperontziak erabiltzea...

4.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan daiten eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangiz, 2007ko azaroaren 27an.

2007/49 ALKATETZA DEKRETUA

Aurrekontu kreditu berriak gai ditzaketen edota Udaletxe honen aurtengo Aurrekontuaren barruan egun dauden aurrekontu kredituak zabal ditzaketen beste erakunde publiko batzuen aurrekontu orokorren kargura jasotzen diren sarrerak daudenez gero, bidezkoa da kreditu gaikuntzaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea, adierazitako sarrerak eta horien zenbatekoa finkatu ondoren hauekin gai daitezkeen kredituak finkatu eta kuantifikatzearen.

Ajangizen agindu eta sinatzen dut, 2007ko azaroaren 29an

50/2007 ALKATETZAREN EBAZPENA

Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertuta, 5/2007 zenbakiarekin identifikatua eta Ajangizko Udaletxeko 2007ko Aurrekontuaren barnean izapidetua.

Idazkari Kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau



Ajangizko Udala

EBATZI DUT

Lehenik.- Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onestea, **2.774,64 euroko** zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondon Kontuhartzailletza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea.

Ajangizen, 2007ko azaroaren 29an.

51/2007 ALKATETZAREN EBAZPENA

Ajangizko Maier inguruko industria hirilurreko urbanizazio proiektua onesteko MAIER S.COOP.en izen eta ordezkartzan, José Ramón San Sebastián jaunak 2007ko urriaren 9an (709 sarrera zbkia.) Ajangizko Maier inguruko industria hirilurreko urbanizazio proiektua eta lurren egokipenerako proiektua aurkeztu zituen.

2007ko urriaren 22ko 41 zenbakidun Alkate dekretuz, Ajangizko MAIER S.COOP. inguruko industria hiri lurreko jabe bakarreko urbanizazio proiektuari hasierako onarpena eman zitzaion, legeak agindutakoaren arabera jendaurreko erakustaldia zabalduz.

Hasierako onarpenaren iragarkia Ajangizko iragarki oholetan, 2007ko azaroaren 7ko 217 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta 2007ko azaroaren 9ko Berria egunkarian argitaratu zen, hogeita (20) eguneko jendaurreko erakustaldia zabalduz.

Jendaurreko erakustaldi epean, alegazio bi aurkeztu dira urbanizazio proiektuari jarrita.

Adierazitakoa kontutan hartuta eta Administrazio publikoetako erregimen juridikoa eta prozedura administratibo amankomuna arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- MAIER S.COOP. enpresari, prozeduran interesdun den eanean, hamar (10) eguneko entzunaldia ematea, aurkeztutako alegazioei erantzuna eman diezaion.

Bigarren.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.



Ajangizko Udala

Hirugarren.- MAIER S. COOP. enpresari honako ebazpen hau tramite hutsezkoa dela ohartaraztea eta ondorioz ebazpenaren kontra inolako administrazio ezta epai errekurtsorik ez dagoela.

Ajangizen, 2007ko abenduaren 4an.

52/2007 ALKATETZAREN EBAZPENA

2007ko azaroaren 30ean (797 sarrera zbkia.) Euskaltel enpresaren izen eta ordezkartzan, Aurelio Campo Iglesias jaunak Maier enpresa euskaltelen telekomunikazio sarera lotzeko eskaera aurkeztu zuen Udaletxean.

Eskaerarekin, Maier enpresari Euskaltelen telekomunikazio-zerbitzuak emateko beharrezko kanalizazioa aurkezten da, Ajangizen, egin beharreko lanak zehaztuz.

Ajangizko Maier inguruko industria hirilurreko urbanizazio proiektua onesteko MAIER S.COOP.en izen eta ordezkartzan, José Ramón San Sebastián jaunak 2007ko urriaren 9an (709 sarrera zbkia.) Ajangizko Maier inguruko industria hirilurreko urbanizazio proiektua eta lurren egokipenerako proiektua aurkeztu zituen.

Telekomunikazio zerbitzuak urbanizazioaren parte direla kontutan hartuta, eta urbanizazio proiektu hori oraindik onartu gabe dagoela kontutan ahartuta.

Legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Euskaltel enpresaren izen eta ordezkartzan, Aurelio Campo Iglesias jaunak Maier enpresa euskaltelen telekomunikazio sarera lotzeko eskaerari ezetza ematea, urbanizazio proiektua onartuta ez dagoen bitartean.

Bigarren.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko abenduaren 4an

53/2007 ALKATETZAREN EBAZPENA

Mentzetara doan landabieda egokitzeko lanen I.faseko lanak aurrera eramateko lanen burutzapenerako asistentzia teknikoa eta zuzendaritza kontratatzea nahita nahiezkoa da. Eskatutako aurrekontuaren arabera 1.624,00 euroko kostua izango luke lan horrek.



Ajangizko Udala

Jasotako eskaintza aztertuta eta Administrazio Kontratuak arautzen dituen legea kontutan hartuta, espedientea osatzen duten txostenetan oinarrituz eta Hazienda batzordearen proposamena aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Mentzetara doan landabieda egokitzeko lanen I.faseko lanen asistentzia teknikoa eta lanen zuzendaritza udal teknikaria den Humberto Fernandez Pascual jaunari agintzea, 1.624,00 euroko kostu orokorrarekin.

Bigarren.- Ebazpen honen berri esleituari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko abenduaren 4an

54/2007 ALKATETZAREN EBAZPENA

Maite Bilbao Madariaga andreak 2007ko azaroaren 2an (755 sarrera zbkia.) Mendieta 61 etxera doan bidea zabaltzeko beharrezko lanetarako baimena aurkeztu zuen Udaletxean. Horretarako 10 metroko luzeran eta metro bateko zabaleran 31 m³ko lur mugimendua egitea proposatzen du, eskaerarekin batera aurkeztuta dokumentazioan azaltzen denaren arabera.

Udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera, eskatzen diren lanak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidariak P6 BABES EREMU modura zailkatutako lurretan burutu behar omen dira. Aipatutako kokapena, paisaiaren, ikuspegi eta eskenografia aldetik zaurgarritasun handikoak diren lurrek osatzen dute.

Ajangizko Arau Sorosgarriek 71. Artikuluan lur ez hirigarrian eraikuntza eta lurraren erabilpen ekintzak arautzean, aipatutako Urdaibaiko Egitamu Gidariak araututakoa jasotzen du betebeharrezkotzat.

Urdaibaiko Egitamu Gidariko 89 artikuluan babes eremuak arautzean, lurren erabilera eta eraikuntzako baimendutako ekintzen artean ez ditu eskatutako lanak jasotzen. Ondorioz, lanak onartezintzat jotzen dira.

Adierazitako guztia kontutan hartuta eta Udal arkitekto aholkulariak egindako txostenean oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Maite Bilbao Madariaga andreak aurkeztutako lanetarako eskaerari ezetza ematea, Urdaibaiko Egitamu Gidariko 89. artikuluan oinarrituta.



Ajangizko Udala

Bigarren.- Ebazpen honen berri esleituari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

2007/55 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

JESUS MARIA ETA ANGEL LUIS OLAETA ZARRABEITIA JAUNEK KANPANTXUKO ARGANA AUZOKO P2 LURZATIAN FAMILIA-BIKOITZEKO ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO AURKEZTUTAKO BAIMEN ESKAERA.-

7/2007 Esp.

Jesus Maria eta Angel Luis Olaeta Zarrabeitia jaunek, Ajangizko Kanpantxu auzoko Argana auzoan, P-2 lurzatian familia bikoitzeko etxebizitza eraikitze baimena aurkeztu zuten Udaletxean, dagokion bazkun profesionalak onetzitako Arkaitz Gorostiaga Gondra arkitektoak burututako oinarrizko proiektua aurkeztuz. Proiektuaren arabera, lanen aurrekontu orokorra, 337.820,26 eurokoa da.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Egitamu Gidariak 130. Atalean aurreikusten duen aginduzko txostena lortu asmoz Udalak egindako eskaera erantzunez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Batzorde Iraunkorrek 2007ko maiatzaren 23an egindako batzarrean Jesus Maria eta Angel Luis Olaeta Zarrabeitia jaunek egindako eskabideari aldeko txostena ematea erabaki zuen.

Ajangizko Udalak, udal teknikariek egindako txostenetan oinarrituta, 2007ko uztailaren 5eko 2007/19 Alkate Dekretu bidez, Jesus Maria eta Angel Luis Olaeta Zarrabeitia jaunek, aurkeztutako proiektuaren arabera, Ajangizko Kanpantxu auzoko Argana auzoko P-2 lurzatian familia bikoitzeko etxebizitza eraikitze baimena eman zien. Baimen horretan, adierazten zenez, eraikuntza lanak hasi ahal izateko, Exekuzio Proiektua aurkeztu beharra zegoen.

2007ko abenduaren 3an (798 sarrera zbkia.) Jesus M^a eta Angel Luis Olaeta Zarrabeitia jaunek, Arkaitz Gorostiaga Gondra arkitekto jaunak sinatu eta dagokion bazkun profesionalak onetzitako exekuzio proiektua aurkeztu dute Udaletxean.

Udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera, aurkeztutako proiektuak Ajangizko Arau Sorosgarriek eta Urdaibaiko Erreserbaren Egitamu Gidariak araututako baldintzak betetzen ditu, eta ez dago lizentzia emateko inolako hirigintza oztoporik.

Adieraziakoa kontutan hartuta, eta legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:



Ajangizko Udala

Lehenengo.- Jesus M^a eta Angel Luis Olaeta Zarrabeitia jaunei, aurkeztutako proiektuaren arabera, Ajangizko Kanpantxu auzoko Argana auzoko P-2 lurzatian familia bikoitzeko etxebizitza eraikitze baimena ematea.

Bigarren.- Eraikitza lanak hasteko epea sei hilabetekoa izango da eta hamazortzi hilabetekoa bukatzeko epea, bi epe hauek jakinerazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko direlarik.

Hirugarren.- Eskainitako epearen erdiko luzapen bakarra eman daiteke, beti ere interesdunak epea bukatu aurretik eta behar bezala arrazoituta luzapenerako eskaera egiten baldin badu, idatziz, eta Udal Erregistroan sarrera emanez.

Aipatutako epeetako bat beteko ez balitz, lizentzia iraungitua eta efektu gabea bilakatuko da, horrek lanak berehala etentzeko beharra ekarriko duelarik. Etentzea berehalakoa ez bada, zigor prozedura martzan jarriko litzateke. Pertsona eta ondasunen segurtasunerako behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, udalaren ikuskaritzarekin bukatuko dira.

Laugarren.- Udalari lizentziaren titulartasun aldaketa oro jakinerazi beharko zaio, titular berriak zein zaharrak sinatutako idatzi bidez. Titular berriak idatzi horretan, lizentziaren ondorioz sortutako betebeharrak bere gain hartuko ditu espresuki. Betebeharrak agiri publikoan bilduta baleude, titular berriak formalitate berberak aplikatuz bereganatu beharko lituzke.

Bosgarren.- Aurkeztutako agirietan azaltzen diren datuak gezurrezkoak balira edota lanak burutzean gora-beherarik suertatuko balitz, lizentziaren titularra zein proiektuaren egilea erantzule izango dira. Arau hau ez da aplikagarri izango proiektua egin duen teknikaria lanen zuzendari ez denean, kasu hauetan xehetasun hau Udalari aurretik jakinarazi beharko zaiolarik, dagokion onetsitako dokumentazioa aurkeztuz. Azken baldintza hau beteko ez balitz, lizentziaren titularrarekin batera proiektua sinatu duen teknikaria ere erantzule dela ulertuko da.

Teknikari zuzendaria aldatuko balitz, Udalari jakinerazi beharko zaio, aldaketa hori balioezten duen onetsitako dokumentazioa aurkeztuz.

Seigarren.- Eraikuntza lanak hasi aurretik, eskatzaileak Eraikuntza Instalazio eta Lanen gaineko zerga ordaindu beharko du, behin betiko kitapenaren arabera. Lanak bukatzean, lan bukaerako azken ziurtagiria aurkeztu beharko da behin betiko kitapena burutu ahal izateko.

Zazpigarren.- Baimena jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetik kalterik gabe emana ulertuko da.

Zortzigarren.- Onartutako proiektuan edozein aldaketa egiteko, nahita-nahiezkoa da udalaren aurretiazko baimena, horretarako denboraz kasuan-kasuko dokumentazioa aurkeztu beharko delarik.

Aurkeztutako aldaketak onartzen ez diren artean, aldaketak ezin izango dira burutu.



Ajangizko Udala

Bederatzigarren.- Pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira, materiale eta lan tresnak erabilera publikoko lursailera erortzea ekidituz, indarreango Segurtasun eta Osasun neurrien arabera babeserako bidera, ohial, etab. jarritz.

Lizentziaren titularra lanen ondorioz suertatzen idren kalte guztien erantzule izango da, eta ezin izango da udal baimena erantzunkizun hori ezabatu edota arintzeko.

Hamargarren.- Lanek bidea ixtea edota herritarrengan eragina duen bestelako ekintzarik beharko balute, aurretik eskudun administrazioek emandako baimenak lotzea nahita nahiezko izango da.

Hamaikagarren.- Interesdunari ebazpen honen barri eta Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zergaren behin-behineko kitapenaren berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko abenduaren 14an.

3.- AJANGIZKO KULTUR ETXEKO LANEN 2. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udal Gobernu Batzordeak, 2007ko maiatzaren 10ean ospatutako batzarrean, besteak beste, "Ajangizko Kultura ekipamendua. Erabilera ugarirako gelak, ordenagailu gela eta arte plastikoetarako tailerra" sortzeko lanak CONSTRUCCIONES MALAXETXEBARRIA ANAIK S.L., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 216.129,48 euroko kostuarekin.

Udal arkitektoak, lanen zuzendari modura, 116.275,33 euroko lanen 2. ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle.

Ziurtagiriari, Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak 116.275,33 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako F57-2007 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udsal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- "Ajangizko Kultura ekipamendua. Erabilera ugarirako gelak, ordenagailu gela eta arte plastikoetarako tailerra" sortzeko lanen lehen ziurtagiria onartzea, 116.275,33 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak aurkeztutako 116.275,33 euroko kopuru orokorra duen faktura onartzea.



Ajangizko Udala

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

4.- ESAITEK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONARPENA (EUSKAL HERRIA, NAZIO BAT SELEKZIO BAT), BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, ESAIT, Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak aurkeztu duen, "Euskal Herria, Nazio bat, selekzio bat" mozioaren berri ematen du, ondoren transkribatzen den mozioaren edukina bera irakurritz:

EUSKAL HERRIA, NAZIO BAT SELEKZIO BAT MOZIOA

Ofizilatutasunaren bidean, kirol esparruan eginiko saiakeren eta aldarrikapen saioen aurka 2007. urtean Espainiako Gobernuak izandako jarrera erasotzailea oso nabarmena izan da. Besteak beste, Paulino Luesmak, Espainiako Gobernuak, EAEn duen ordezkariak, Euskadiko 19 Federaziotako estatutuetoako artikulatu batzuen aurka jarritako helegitea -EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartua-, Euskal Herriko futbol selekzioko jokalarien ofizialtasunaren aldarrikapenerako, Venezuelan ateratako pankartarengatik, jasandako lintxamendu mediatiko eta politikoa, e.a.

Eraso guzti hauek, euskal herritarren eta gure ordezkari diren instituzioen aldetik, erantzun sendo bat eskatzen dute. Euskal jendaratean nagusiki hedaturik dagoen ofizialtasunaren nahiak eta beharrak, instituzioen babes behar du. Hau dela eta, abenduan sentimendu hau barnebiltzen dituen hainbat nazioarteko lehiaketak daudela eta, Udalbatza honek honako adierazpena egiten du:

1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariek, beren nazioaren koloreekin euskal selekzioa ordezkatzuz, nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute.

2.- Udalbatza honek eskubide horren ukazioa arbuiatzen du; batetik, kirolariei, Euskal Herria ordezkatzuz, gainontzeko munduko nazioetako kirolarien antzera, ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako, eta bestetik, euskal herritarrok nazioartean gure ordezkari izateko dugun eskubidea urratzen duelako.

3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaria izateko eskubidea ukatzen zaionean, Euskal Herriaren kanpo proiektzioa eta, finean, nazio baten existentzia ukatu nahi da. Beraz, Udalbatza honek euskal herritarren eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa arbuiatzen du.



Ajangizko Udala

4.- Zentzu honetan, herritarrei dei egiten diegu ESAITek, abenduaren 29an, Bilbon "EUSKAL HERRIA, nazio bat, selekzio bat" lelopean antolatutako ekimenetan, eta zehazki, arratsaldean egingo den manifestazioan parte hartzeko, egun hori euskal selekzioaren (ofizialtasunaren) aldeko aldarrikapenerako eguna izan dadin.

5.- Udalbatza honek, herritarrek, abenduaren 29an Bilboraino adarrikapena eraman dezaten erraztuko, eta erabaki honen berri herritarrei jakinarazi die.

Alkateak mozioa irakurrita, botaziora aurkezten da, aho batez onartuz.

5.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Roman Etxeandia zinegotzi jaunak, Maierreko urbanizazio proiektuari jarritako alegazioei buruz galdetzen du.

Alkate jaunak. Maierek urbanizaziorako lurren mogimendua burutu behar duela aipatzen du. Inguru horretan inundabilidade arazoa dago eta horrekin lotuta izan dira hain zuzen ere aurkeztu diren alegazio biak. Alegazioek Maier tapoi modura egin eta euren lurak ureztatuko direla aipatzen dute. Urbanizazio proiektua halere Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzara bidali dela aipatzen du Alkateak, eta horren erantzunaren zain dagoela Udala.

- Roman Etxeandia jaunak Mentzetako bidean egiten ari diren lanetan, tontorra zergaitik kendu ez den galdetzen du.

Alkate jaunak proiektuan Gorostizaren etxe aurrean zabaltzea jasotzen zela azaltzen du, baina lanak burutzerakoan konponbide horrek ez omen zuen balio, lurak ez bait ziren behar bazala eusten, horrek suposatzen duen konsistentzia faltarekin. Hori konpontzeko, ezkerretara zabalduta ahal izan den neurrian. Halere lanak bukatzeke daude, eta bai puntu horretan eta baita Antzosolo aurrean ere bidea jeitzi behar dela esan omen die obrakoei. Lanak momentuz gelditu daude, eta enpresak adierazi duenaren arabera, urtarrilaren 7rako bukatuko omen dira, asfaltatu behar duen enpresa falta baita etortzeko. Gainera "prueba de carga" delakoa ere egin behar dute...

Angel Luis Uribarri zinegotzi jaunak aipatzen duenez, Gorostizari bere etxeko aldapa murrizteko aukera ere eman zitzaion, baina berak ez omen zuen bere terrenorik ikutzerik, eta tontorra asko jeitzi ezkerreko bere sarrerak aldapa handia hartuko luke. Inguruko jabe guztiak batu omen ziren bertan eta denon artean ahal izan zen konponbidea lortu zen, proiektuak aurrera egiterik izan zezan.

Uribarri jaunaren esanetan, beldurrik handiena halere urak nola geratuko diren ematen dio, azpiko drenajeak... Gero gainera abiadura murrizteko badenak eta seinaleak ere jarri beharko dira.



Ajangizko Udala

- Etxeandia jaunak Mendietako rotondaren gaia nola dagoen galdetzen du.

Alkate jaunak Bizkaiko Foru Aldundiko Errepide zuzendariarekin, Gorka Estevez, batzar bat egin zutela aipatzen du. Batzar horretan rotondaren arrazoiak aipatu omen zitzaizkion. Estevez jaunak rotonda egin ahal izateko Udala beharrezko lurren jabe izan behar dela aipatu zuen, eta hori konpontzeko Serreriako jabeekin hitzegin da aurretiazko zesioa onartu dezaten. Horrekin berriro ere Estevez jaunarengana jotzeko asmoa dago, berak ez baitu ezer erantzun.

Alkateak adierazten duenez, Patxi Sierra Udal harremanetarako Foru Diputatuarekin ere hitzegin zuten, eta berak Estevezekin hitzegin zuela aipatu omen zuen. Sierra jaunarekin Maier-Mendieta bideari buruz ere hitzegin zen, eta proiektu hau faseka aurkezteko gomendioa egin zuen.

Rotondako lurak eskuratuta daudenean, formalizatuta (oraindik ahozko konpromesua besterik ez baitago), Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu beharko du rotonda egitea nola bideratu behar den.

- Alkateak Serreriakoekin ere oraindik akordia pendiente dagoela azaltzen du. Arkitekto bati balorazio bat eskatu zaiola aipatzen du, aurretik egon ziren hitzarmenak oinarritzat hartuta. Egindako estudioaren arabera, udalak babespeko zazpi etxebizitza eta frontoirako gutxi gora behera 600.000 euro lortuko lituzke. Guztira 28 etxebizitza izango lirarteke, lau bloketan banatuta baihoitza zazpi etxebizitzakin.

Angel Luis Uribarri jaunak, estudioa etxebizitza libre eta babespekoen arteko diferentzian oinarritzen dela aipatzen du, Udalak unitateko babespeko guztiak bere gain hartu eta diferentzia dirutan jasoaz frontoia eraikitzeke aukera lortuko baitlute.

Alkatea den Carbonell jaunak aipatzen duenez, guzti hau proposamen bat izan da, baina orain beste aldeak aztertu eta beraien erantzuna eman beharko dute.

- Maier-Mendieta bidea nola dagoen galdetzen du Roman Etxeandia jaunak.

Alkateak aipatzen duenez, lehen esan bezala udal harremanetarako Foru Diputatuarekin hitzegin zen honi buruz. Berak aipatutakoaren arabera, proiektua hiru fasetan banatuko da, lenhengoa, Maier- Zubitxua, gutxi gora behera 150.000 euroko aurrekontuarekin 2008 urtean burutzeko. Udal harremanetarako aldundiko sailak emango omen du horretarako laguntza Sierra jaunak adierazitakoaren arabera.

- Angel Luis Uribarri jaunak dioenez, Maierreko urbanizazioa da momentu honetan udalak duen gai garrantzitsuenetako bat. Momentu honetan Maier lege bidean dabilela aipatzen du, eta Udalak bide hori aurrera egin behar diola, urbanizazio proiektuari aurrera eginez. Horrez gain Maierrekin zegoen hitzarmena eguneratzeko asmoa ere badagoela aipatzen du Uribarri jaunak.



Ajangizko Udala

Etxeandia jaunak, Juan Pedroren garaian Udaletxean Kultur Etxea egiteko Maierrerrek hamasei miloi pezeta ingresatu zituela aipatzen du, eta diru horri buruz ezer ez dela agertzen, ez dagoela inolako justifikaziorik diru hori non gastatu den jakiteko.

- Koldo Carbonell jaunak, 2008ko aurrekontuak prestatzen dabilela azaltzen du, Kultur etxerako mobiliarioa jarri, pertsona bat kontratatzea, argiteria, irisgarritasun plan barruan obra txiki batzuk, etab. aztertzen dabiltzala. Urtarrila erdirako borraore bat egiteko asmoa daukate, gero EAJ-PNV taldekoei azaldu eta hauek aztertzerik izan deaten.

- Roman Etxeandia jaunak azaroaren 2an frontoiari buruz beraiek burututako aurreproiektua aurkeztu zutela aipatzen du, eta Koldo deitzeko geratu omen zela. Barririk jaso ez dutenez, zer dago gai honi buruz?

Alkate jaunak proposamena aztertuta plaza ingurua gune honetzat jotzen dutela aipatzen du, orain 3.000 m² horiei zer irtenbide eman ahal zaien pentsatu beharko delarik...

Angel Luis Uribarri jaunak lur horiek herritik beste aldera geratzen direla aipatzen du, bideak banatuta... eta horrek frontoirako toki egokiagoa Abadetxe ondokoa egiten duela.

Koldo Carbonell jaunak azaltzen duenez, Abadetxe ondoko frontoiak 26 m. izango lituzke, lurperatuta elizako altuera ez gainditzeko. Gero grada batzuk eta beheko aldean aldagela eta gimnasio txiki bat... Dena dela hori guztia proiektua beharrean dago.

Etxeandia jaunak adierazten duenaren arabera, beste aldean geratzen den mota handiari irtenbidea ematen dio euren proiektuak, beste aldean Ajangizen beharrezko diren aparkalekuak egiteko aukera sortuz.

Uribarri jaunak aparkalekuen arazoa badagoela aipatzen du, baina hori behar bezala aztertu behar dela, batez ere Ajangizek beste lurrik ez duela kontutan hartuta. Hori Arau Sorosgarriak aztertzean kontutan hartu beharreko gaia litzateke.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzi terdiak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA